


Kanpainaren espiritueltasuna

2020ko Gabon aldia

Lehenengo unea

Toki baketsua bilatu, jarrera eroso bilatu eta jarrera horretaz gozatu. Kanpainako kartela izango dot aurrez aurre. Neure gorputza eta burua prestatu egingo dodaz Jainkoaren aurrean eta maitasunez inguratuta sentitzeko.

Lasai-lasai, kartelari begiratuko deutsat, Schuberten pieza hau ¹ entzuten dodan bitartean.



Schubert

Lehenengo eta behin, goiburuz jabetuko naz: **erdu-te invito**. “Maisu, non bizi zara?”, galdera bakun eta erabakigarri ha, “etorri eta ikusi”, Jesusen erantzuna eta “joan eta geratu egin zan”, jarduera irudikatuko dodaz barriro nire barruan.

Neuk be badot lekua mahai horretan. Oraindik leku nahiko dago jaiko mahaian. Eseri eta mahai inguruan esertzen dan zazpigarren lagun bihurtuko naz. Zazpi gara; zazpi, zenbaki perfektua tradizino biblikoan. Abegiaren mahaira konbidatu nabe.

Nire lekutik, balkoi arrunta ikusten dot, munduan be jai dala adierazten dauan apaingarri txiki bategaz; bizitzaren alderdi guztiak zaintzen diranean, balkoi zabalaren bitartez, alkarrengana hurreratzea galarazten deuskun itxitura eta hesi barik, abegia hedatzen danean, jai egiten dala adierazten deuskun apaingarriaz.

Atzealdean, zeru izartsua. Egundoko lekua dago unibertsoan. Ze handia! Horren aurrean, txiki sentitzen naz, apurkor. Gau izartsuaren handitasun eder horrek salmogilearen abestia dakargu burura: ‘Zer da gizakia gogoan izan daizun?’... Gauz gitxi gara, baina gure keinuak garrantzitsuak dira. Caritasen beste kanpaina bat datorkit burura. Bai, zeinuetan benetan jarten dogu jokoan bizia. Segundo batzuetan, azken hilebeteetako nire zeinurik esanguratsuenak gogoratuko dodaz: benetan bizia zaintzeko balio izan dabenak, nire beharrezana ebanari benetan lagundu deutsan gauzak... Batez be, pandemia aldi honetan jarriko dot arreta...

¹ Franz Peter Schubert: Symphony No. 5 in B flat major, D. 485: Andante con moto

Goiburuak durundi egin daiala nire barruan: *“Zaindu bizia abegitsu izanik”*. Berba xumeak, berba sakonak, batez be kolore urdin, berde zuri eta gorriaz, kartel batean idatzitako berbak... Herri kutsua daben koloreak; lurrez hitz egiten daben koloreak; nortasunak errotulutzen dabezan koloreak; mahaikide diran hemengo eta hango aurpegiak, gazte eta nagusienak, gizon eta emakumeenak... margotzen dabezan koloreak...

Mahaia, mahaikide izatea..., poztasuna eta itxaropena islatzen dabez; suntsitutako hesiek, ezabatutako mugek, eraikitako adiskidetasunak, berba santuak... dakarren batasunaren jaian irribarretsu agertzen diran aurpegietan islatzen diran poztasuna eta itxaropena...

Mahaian, beharbada jateko gitxi, baina nahiko. Plater barik. Inork ez dau *“hau neurea da”* esango. *“Geurea da dana”*. Mahaiak xumetasuna erakusten dau. Aurpegi zoriontsuak, giza bizitza sakontasun osoz bizitzeko makina bat arrazoi! Uraz topa egitea, biziaren emonkortasunaren alde topo egitea da. Mahaian, bizitzako tirabira eta zailtasunak be ebazten dira akordioetara heltzeko. Konpromiso sakratu bihurtutako berba eta akordioak.

Kandela gorosti-hosto biren gainean, eta hostoakaz batera, samurtasunaren, sentiberatasunaren, gauzak egiteko aukeraren eta gauzarik txikiak be kontuan hartzearen garrantzia agertzera emoten deuskuen frutu gorriak. Xehetasunak, garrantzitsuak dira, zirrarak agertzera emoten dabezalako eta sentimenduak batera jarten.

Eta argi eta izadiaren arteko batasunaz gainera, ogia eta ardoa dagoz Erreinuko mahaikidetasun eta bankete handiaren zeinu lez. Mahaiaren inguruan jatea eta edatea, giza harremanak eta kristau alkartea eusten dituan senidetasunaren zeinu da.

Mahaia, bizitzako esperientzia da, ohikunea. Jatekoa, ogia eta ardoa, jakiak baino zerbait gehiago dira: bategitearen eta alkartasunaren sakramentu dira.

Kartelari begiratuko deusat barrero be, eta sentitutako guztia nire barruan gordeta, JMR Olaizola jesuitaren otoitzean² oinarritutako hau egingo dot:

Jauna, nire ekipajea arina izango da,
ibili eta aurrera egiteko,
ikusteko, entzuteko eta eskertzeko.

Nire atzean itzi gura dodaz
bat-batean agertzen jatazan
zalantzak, geldiarazten naberen
bildurak, lotzen naberen
gorrotoak.

Irakatsi eidazu, Jauna, samurtasunez
zaintzen, argi eta garbi konfiantza izaten,
poztasunez harrera egiten eta
eskuzabaltasunez banatzen.

Ipini, Jauna, nire bizitzako
maletan, euren historia
daben pertsonen izenak,
oroimenean diran milaka
aurpegiak, eta zure
bihotzean niretzat
dozuzan egitasmoak.

«Zeuregana, Jauna, jasoten dot
neure arima, Zeuregan dot uste
osoa. Ez naizu itzi. Erakutsi
eidazu zeure bidea, kontuan
hartu nire ahalegina, parkatu
nire hutsak, argi egin nire
bizitzan, Zuregan dot-eta
itxaropen».

² Ik.: Jose M^a Rodriguez Olaizola s.j. <https://pastoralsj.org/recursos/oraciones/167-mi-equipaje>

Bigarren unea

Frantzisko Aita Santuak hauxe inoan Etorikin eta Errefuxiatuen egunean:

“Ana-arreba etorkin eta errefuxiatu maiteok. Errukiaren Ebanjelioaren sustraian, besteagaz bat egitea eta besteari harrera egitea Jainkoagaz bat egiteagaz eta Jainkoari harrera egiteagaz lotzen da. Bestea hartzea, Jainkoa bera hartzea da. Ez deizuezala Jainkoaren errukiaren esperientziatik sortzen diran, bidean bat egiten daben pertsonengan agertzen diran itxaropena eta poztasuna ostu”.


Aita Santuaren berbak, kartela, eta handik sortzen diran ideiak -mahaia eta mahikide izatea, mundua eta bere gau eta egunak, pertsonen atsekabe eta itxaropenak, alkar zaintzea, alkarri askatasunean eta maitasunean harrera egin eta gu bihurtzea...-, gogoan hartuz, *“Todo es de todos”* Luis Guerraren abestia entzungo dogu:

'Todo es de todos'

Si todo es de todos,
la Deuda del mundo es una injusticia.
Si todo es de todos,
los que tienen tanto que no piden más.
Si todo es de todos,
¿por qué hay tanta gente que no tiene nada?
Si todo es de todos,
las deudas eternas tendrán un final.

Todo es de todos, todo es de todos.
Todo es de todos, todo es de todos. Todo es de todos...
Todo es de todos...

Todo es de todos, todo es de todos.
Todo es de todos, todo es de todos.
Si todo es de todos,
la Deuda del mundo es una injusticia.
Si todo es de todos,
los que tienen tanto que no piden más.
Si todo es de todos,
¿por qué hay tanta gente que no tiene nada?
Si todo es de todos,
las deudas eternas tendrán un final.



Todo es de todos

Caritasen kanpaina honetako ebanjelioak busti gaizala. Gabonak atarian doguz eta Jainkoak Nazareteko Jesusengan mundura hurreratzean esaten dauan lehenengo berbea poztasunera deitzeko da. Horixe entzuten dau Mariak. *“Poztu zaitez”*. Ez deiogula lurreko izaki bakar bati be *“bizi-poza”* ostu.

Handik sei hilebetera, Jainkoak Gabriel aingerua bialdu ebaqn Nazaret eritxon Galileako herri batera, birjina batengana; birjinak Maria eban izena, eta Jose izeneko Daviden jatorriko gizon bategaz ezkontzeko hitza emonda egoan. Aingeruak, Mariarenean sarturik, esan eutsan: –Agur, Jainkoaren gogoko hori! Jauna zugaz. Hitz honeek entzutean, ikaratu egin zan Maria eta agur horrek zer esan nahi ete eban galdetzen eutsan bere buruari. Aingeruak esan eutsan: –Ez bildurru, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango dozu eta Jesus ipiniko deutzazu izena. Handia izango da, Goi-goikoaren Seme deituko deutse, eta bere aita Daviden tronua emongo deutso Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta bere erregetzak ez dau azkenik izango. Mariak esan eutsan aingeruari: –Baina zelán izanleike hori, ez banaz gizon bategaz? Aingeruak erantzun eutsan: –Espiritu Santua etorriko da zuregana eta Goi-goikoaren indarrak hodeiak lez estaliko zaitu; horregaitik, zuregandik jaioko dana santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko deutse. Begira, Elisabet zure lehengusina be haurdun gertatu da bere zaharrea eta sei hilabete dago agorra ei zana; Jainkoarentzat ez da-eta ezer ezinezkorik. Orduan, esan eban Mariak: –Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan lez. Eta aingeruak itzi egin eban. (Lk 1, 26-38)

Deia, zainketak, harrera, abegia, poztasuna ezinbesteko daben zeinuak dira; poztasuna, bizitzarako nortasun lez eta giza izatearen eta jarduera ebanjelizatzailearen oinarritzko jarrera lez. *“Ebanjelioaren poza bihotzaren eta bizi osoaren betegarri da Jesusekin topo egiten dutenentzat. Haren salbamena onartzen dutenak askatuak dira be-katutik, tristuratik, barne-hutsetik eta isolamendutik. Jesu Kristorekin beti sortzen eta birsortzen da poza. Aholku-hitz honekin kristau guztiei zuzendu nahi natzaie, poz hori ezaugarri duen ebanjelizatze aldi berri honetara gonbidatzeko eta datozen urteetarako Elizaren ibilbiderako bideak erakusteko”*.³

Benetako pozak geure barru-barruan sortu behar dau. Bestela, azaleko barre izango da, barre-argara hutsa, bozkario igarokorra, eta poztasuna kanpoan geratuko da gure bihotzaren atean.

Itxaropenaren Teologiak beren-beregi adierazten dauanez, gizadiaren ibilbidea eta helmuga, poztasuna da. “Jainkoarengandik datorren askapen handiaren azken eta lehen berbea ez da gorrotoa, poztasuna baino; ez da kondena, parkamena baino. Kristo Jainkoaren poztasunetik sortzen da, eta hil eta biztu egiten da mundu kontraesankor eta absurdu honetara poztasuna ekarteko⁴.

Poztasuna, egundoko oparia da baina, aldi berean, makal samarra. Arimaren barru-barruan, apaltasun eta eskuzabaltasunez zaindu egin behar dogun doea.

Baina bada beste zerbait be. Zelan izan zorioneko, lurrean hainbeste sufrimentu egonda? Zelan egin barre, oraindik malko guztiak lehortu barik badagoz eta egunero barriak sortzen badira? Zelan gozatu, gizadiaren heren bi gosean, miserian edo gerran hondoratuta badagoz?

Mariaren poztasuna Jainko Salbatzailearengan, zapalduak altxatzen eta buru-harroak hondatzen dituanarengan, gose diranak ondasunez bete eta aberatsak esku-hutsik bihaltzen dituanarengan pozten dan emakume sinistedunaren poza da. Benetako poztasuna zuzentasuna, askatasuna eta senidetasuna danontzak irrikatzen eta bilatzen dauanaren bihotzean baino ez da sortzen. Maria poztu egiten da Jainkoarengan, bertan behera itzitakoen itxaropena gauzatzera dator-eta.

Sufritzen dagozan eta negarrez diharduen pertsonakaz bat eginda bakarrik egongo gara pozik. Poztasuna zapalduen artean zabaltzeko borrokatzen dauana bakarrik egon daiteke pozik. Besteak zorioneko egiten ahalegintzen dana bakarrik egon daiteke pozik. Gure artean bizon barriaren jaiotza benetan bilatzen dauanak bakarrik ospatu daitez Gabonak⁵.

Busti gaitez eraginkorra, emonkorra, sortzailea, konprometitua dan eta Jainkoaren ametsak egia bihurtzen dituan poztasunaz. Erreinuko Banketea aurreratuz, “zeinuak garrantzitsuak dirala” agertzera emoten daben haziak ereitea da Eleizaren misinoa.

Jainkoak Mariari proposatzen deusan poztasuna, ebanjelioaren, zorientasunen, harreraren, akonpainamenduaren, mahaikide izatearen poza da. Entzun daigun abesti hau eta prestatu daigun geure bihotza Munduaren Poztasunari harrera egiteko.

³ Evangelii Gaudium 1. zenb.

⁴ Jürgen Moltmann

⁵ Ik. Jose Antonio Pagola. La alegría posible. Lk 1, 26-38 txatalaren inguruko azalpenak.



¡ALÉGRATE!

¡Alégrate, alégrate, llena de gracia! ¡alégrate!
 la voz quedó sellada en su entraña,
 se ha hecho carne la palabra.
 ¡alégrate, alégrate, llena de gracia! ¡alégrate!

Como un río en crecida,
 como copa de vino en la fiesta,
 desbordada de amor has salido al encuentro.

Ya no hay distancia, no hay tiempo,
 es la vida engendrada en tu seno
 quien te hace tener la certeza de que todo,
 ¡todo es posible para Dios!

Risas en el aire, gozo hecho
 canción; música de
 encuentro,
 danza de dos cuerpos al ritmo de un
 abrazo, dos vidas multiplicadas por
 el amor. (2)

Saltan mis entrañas,
 siento que es Dios quien se acerca
 y se inunda mi ser del Espíritu Santo.
 - ¿No oyes gritos de júbilo?
 - ¡Es el mundo que estalla en un canto!
 Feliz tú que creíste en su
 Nombre y entre todas
 mujer, ¡bendita tú!

Risas en el aire, gozo hecho
 canción; música de
 encuentro,
 danza de dos cuerpos al ritmo de un
 abrazo, dos vidas multiplicadas por
 el amor. (2)

Hirugarren unea

Ondoren, patxadaz eta berbak ahopean esanez, *guztiona dan etxea zaintzeko otoitza* egingo dogu.

Gizadiaren Aita,
 mundua doe lez emon zeunskun.
 Zaindu daigula mundua eta pertsona guztiak,
 hartu-emon egokian bizi gaitezana:
 Zugaz,
 geure buruagaz
 eta krezinoagaz.

Zuk lez, giza familia maitatu daigula
 mundu osoko anai eta arrebo,
 ingurumenaren neurribako ustiapenaren eraginez
 pobretsunean bizi diranak zein
 geroko belaunaldiak,
 alkarri lotuta gagozala autortuta..

Zeure ametsen arabera
 bizi gaitezala.
 Suspertu gure bihotzak
 mundu askea, itxaropenez
 betetako mundua, sortu daigun.

Bere Erreinua oparitzen deuskun Jainkoarengan uste osoa jarrita eta begiak zabalik eukazan Mariagaz batera, **GURE AITA** esango dogu.

Gure aita, zeruetan zarana
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua, egin
bedi zure nahia, zeruan bezala
lurrean bere.

Emoiguzu gaur, egun honetako
ogia; parkatu gure zorrak,
geuk bere gure zordunei
parkatzen dautsegun
ezkero,
ez eiguzu itzi tentazinoan
jausten, baina atara gagizuz
gatxetik

Agurtu aurretik, teologia protestantean aditua dan Anje Sabine Naegeliren olerki-bedeinkapena irakurriko dogu eta, bitartean, HARRERAREN, ABEGIAREN kristau jaira, PERTSONAK ETA PLANETA zaintzera DEITZEN gaituan musika entzungo dogu.



Jauna, bedeinkatu nire eskuak,
samurrak izan daitezcan
eta estutu barik oratu daien,
kalkulatu barik emon
eta bedeinkatzeko eta kontsolatzeko
gauza izan daitezcan..

baina ez entzuteko,
ulertzeko eskatzen daben
ahotsak entzutean, nahiz eta
nire erosotasunaren aurka
joan.

Jauna, bedeinkatu nire begiak,
beharrizana ikusi daien
eta ez daien sekula inor liluratzan ez
dauana ahaztu;
azaletik harago ikusi daiela,
nire begiradak besteak z
orioneko egin daizan.

Jauna, bedeinkatu nire ahoa,
Zeure lekukotasuna emon daidan,
berba mingarri edo suntsigarriarik
esan ez daidan. Arintasuna dakarren
berbak esan daidazala, isilean
gordetzeko eskatu deustena
agertzera emongo ez daben berbak,
irribarreak eragiten dabezan berbak.

Jauna, bedeinkatu nire
belarriak, zure ahotsa
entzun daien
eta argi eta garbi entzun
nahigabetuen garrasia;
gor geratu daitezcala
alperreko zarataren eta
berritsukeriaren aurrean,

Jauna, bedeinkatu nire bihotza, zure Espirituaren
tenplu bizi izan daiten eta berotasuna eta
aterpea emon daian; zabala izan daitela
parkamenean, ulermenean eta atsekabe eta
poztasuna konpartitzeko gauza izan daitela
maitasun handiz. Ene Jainkoa, zeure esanetara
egon naitela nazan eta daukadan guztiaz.

Salva Garcia San Emeterio